

UZTAPIDE'ri AZKEN AGURREZ

Ekainaren zortzian hil zaigu Uztapide. Bere galera doluminezkoa izan da Euskal Herri guziarentzat, bereziki bertsozaleentzat.

Manuel Olaizola Urbietta, Endoia (Zestoa) auzoko Uztapide baserrian jaio zen duela hirurogeta hamalau urte. Gaztetxo hasi zen bertso gintzan eta Euskal Herriko txapeldun izatera iritsi zen. Beraz, goren mailako bertsolaria genuen eta hori, beste gabe, gizonaren doainen erakusgarri bada ere, hortik gora edo hortik aparte, Uztapide, zerbait gehiago zen gure egungo euskaldun gizartean: bertsolari eskola zaharraren eredu eta zubi ondoko belaualdieri begira.

Xenpelar errederiarrak forma eman zion Gipuzkoako bertsolari eskolak izan ditu ondorengoetan jokera berezi batzuk dialektikaren aldetik eta eztenkadazko ateraldietatik, bertsoa osatzeko era ere tartean dela, Pello Errota, Txirrita eta beste zenbait bezala. Ba, era hortakoa genuen Uztapide ere. Baina, izakera horrek ez zion ezer kentzen bestelakoak egiteko ere.

Bertsolari berezia izatez aparte, bere emaitzak bazuen bestelako doairik ere. Gerra aurreko txapelketan agertu zen bertsolari eta gerraondoan, euskararentzat guzia hila zela uste zen garaian, Basarrik hartu zuen bere lagun bikotea eginaz Euskal Herriko plazetara gure hizkuntz zaharraren lekukotasuna agertuz. Euskararen historian oso gogoan edukitzekoa da urte ilun haietan, Basarri eta Uztapide eremuko predikuetan, mila eratako jarrereri aurpegia emanaz, umiltasunik handienez, plazarik plaza azken titiriteroak izandu balira legez.

Herririk gehienetarako egun seinalatuak zituzten eta oroitzen naiz urtez urte hutsik egin gabe nola etortzen ziren San Pedro egunez Eibarrera, Urkuzuko plazan kantatzera. Horien eragina nolakoa zen jakiteko, aski dut esatea, gaztetxotatik murrala hartu eta mendira irtetzen nintzela egunetarako San Joan jaietan, baina San Pedroetan ez ezergatik eta ez inorgatik ez nuela utziko Urkuzuko plazan bertso saiora agertzerik. Horregatik iduritzen zait ni bezalako beste asko izango zirela Euskal Herriko plazetan, euskara hain mespresiatua zen garaian, bertsolari hoiek entzuteko irrikitzen.

Bertsokeraz taxura berezia zuen Urtapidek, Basarrik Otaiñoren jokera bazuen ere, beste hau Xenpelarren satira erekoe-tan zen mutila. Baina, satirazko ateraldiak soilik ez zuten osatzen Uztapideren bertsokera. Bazuen bestelako berezitasunik ere. Eredugarri har genezazkenak dira idea bati mugaturik eta idea hori esaldi labur eta egoki batera errendituz egiten zituena. Esaldira eroateko betegarriz egingo zuena, preparazio edo inguratzeko hutsa izango zen eta bertsolariaren intentzio guzia azkenerako gordez esaldi egoki baten bidez agertu. Bere teknika eskema gordetzen zuen, bertsoa erraz eginaz eta grazia berezia emanaz. Horregatik, ofiziokoetan, elkarri erantzunezko dialektika eztenez kargaturik eramaten zekien. Hori eta bere itxura umila ziren publikoa bere alde eramateko armarik onenak. Jendea beti adi, ia Uztapidek zer nolako ateraldia zekarren. Hara honen adibide bat: Bordari zena prestua zen gaietan gatz-ozpinduzko saltsa jartzen eta ofiziokoetan jarri zituen Uztapide alkate, Lizaso sekretario, Azpillaga maisu eta Basarri apez jaun, baina gu bizi garen herria zeharo nahastua omen, eta Uztapidek karguetan lehenbizikoan lortu zuen bere burua zuritzea; hala nola:

*Dotriñarikan ez dakiena
jarri dute erretore,
maixutzat berriz hor da bestia
gure hizkuntzarik gabe,
sekretaio hau eginda dago
bizio guztien jabe,
alkate onik ez da habentzat
edozein ipinita're.*

Horrelako iltziak zituen Uztapidek besteak menperatuz publikoaren gogoia beraganatzeko.

Bertsogintzarako zuen erraztasunaren adierazgarri dugu behin trunpatuarazi nahirik puntu aldrebes bat eman zitzaioneko hura:

Irigoyenek:

*Ikasi ahal dituzu
ROCK AND ROLL eta TWIST?*

Uztapidek:

*ez degu izan, aizu,
guk horrenbeste bist,
galdetu behar zendula
ez liteke sinist,
naikua pena honek
neri ematen dit.*

Nekeza bai zen Uztapide tranpan hartu eta poto eragitea.

Hara beste adierazgarri bat: Behin batian, elkarri erantzunezko bertsogintzan ari zirelarik, Azpillagak zirikatatu zuen Uztapide eta laster zen honen txanda eztenkalaria:

*Gazte horrek argi dauka
bere memoria,
oraiñ e' karga nigana
baida eroria,
hemen konpondu ezinik,
hau da komeria!
Azpillagan dotriñak du:
zu pekataria.*

Hor ikus bere erreflejoen bizkortasuna, bere etorria eta ekarria.

1962, 1965 eta 1967an Euskal Herriko txapeldun izatera iritsi zen. Baina laster izan zuen bere buruarentzat enbolia gaitza eta azken hamar urte hauetan ez zegoen kanturako.

Hala ere, lehen Auspoa Liburutegiak argitaratu zion *Noizbait* (1964) bertso liburuaz gainera bere eskuz beste bi liburu trinko idatzi zituen, argitaldari berean kaleratzeko: *Lengo egunak gogoan* (1974) bi tomotan bere oroitzapenak prosaz agertuz eta *Sasoa joan da gero* (1976) bertsoz osatua.

Gizon zuzena eta sentibera, sentiberadun guziak bezala bihotz handikoa. Joan zaigu, baina ez bere hilburukoa gure ondasunerako utzi gabe. Horregatik, gure hizkuntzaren historian eta une jakingarri batean, Basarri eta Xalbadorrekin bertsolaritzaren zuzia pizturik gorde zuen, aintzinako belaunaldietatik zetorrena, ondoko gizaldiari eskainiz gure herri literaturaren jarraipenean argi egiteko.

Orain, aspaldi ama zenari bertsoz agertu zion nahiaren garaia heldu zaio:

*Amak eman ziraden
lenengo bularra,
handik hartu nuen
bertsotako indarra,
geroztik bihotzera
datorkit su-garra;
egunsentia joan zan,
laister illunabarra,
gero ta beherago
Uztapide zaharra.*

*Ama oraindik ere
daukat nik goguan,
pena ez egotia
gaur nere onduan,
Jaungoikuak zerura
eraman zinduan,
laister izango zera
ia saminduan,
baiña ni ere hor nazu
laistertxo zeruan.*

Juan SAN MARTIN